

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3154

AGINDUA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez deklaritzen baita Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeak ez duela parte hartuko 2022ko deialdiko Elkartek programaren I. fasea ebazten, eta erabakitzen baita Industriako sailburuordeak ordezkatzuko duela hura.

Otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du, eta haren lehenengo xedapen gehigarrian, ordezkapenen araubideari buruzkoan, honako hau ezartzen du: dekretu horretan aipatzen diren organoetako titularren postua hutsik badago, titularra kanpoan edo gaixorik badago, bai eta abstentzioa edo errekusazioa deklaratu bada ere, honako ordezkapen-arau hauek beteko dira, titularrak berriazko ebazpenik eman ezean:

«a) Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea Industriako sailburuordeak ordezkatzuko du, eta alderantziz.»

2022ko ekainaren 24an, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeak jakinarazi zuen ez duela parte hartuko 2022ko deialdiko Elkartek programaren I. fasea ebazten, uste baitu interes-gatazka egon daitekeela, Kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 10. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Deklaratzea Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeak ez duela parte hartuko 2022ko deialdiko Elkartek programaren I. fasea ebazten, eta Industriako sailburuordeak ordezkatzuko duela hura.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 30a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.